



# Euskal Herriko bake prozesuaren egoeraren azterketa

Aieteko adierazpenetik  
Baionako adierazpenera





# SOMMAIRE

Sar hitza > **3. or.**

Aieteko Nazioarteko  
konferentzia:  
esperantzaren abiatzea  
Euskal Herrian > **4. or.**

Ipar Euskal Herriko  
Elkarrizketarako Taldearen  
adierazpena > **8. or.**

Konklusioa > **10. or.**

Gehigarriak > **11. or.**

1. Aieteko adierazpena > **11. or.**
2. Frantziako Euskal Herriko  
elgarrizketa taldearen  
adierazpena > **13. or.**
3. Nazioarteko  
egiaztatzaile batzordearen  
adierazpena > **15. or.**



# Sar hitza.

2011ko urriaren 17an Donostiako Aiete jauregian burutu zen Aieteko Konferentziaren ondotik, sekula ezagutu ez den testuinguru politikoa agertzen da Euskal Herrian. Euskal Herrian bake prozesu bat abian ezar zedin, nazioarteko 6 liderren eskutik 5 puntuko bide orria zeraman adierazpena plazaratu zen.

Bide orri hori ETA-ri zuzentzen zitzaion lehenbizi. Bere jarduera armatua uzteko eta Estatu espainiar eta frantziarrekin gatazkaren ondorioen inguruan eztabaidatzea onartzeko eskatzen zion. Bigarren puntua frantses eta espainiar Estatuei zuzentzen zitzaient, erakunde armatuak nazioarteko eskaerari ihardetsiz gero, baikorki erantzuteko eta eztabaida onartzeko eskatuz. 2011ko urriaren 20an, ETA erakundeak nazioarteko eskaerei baiezkota eman eta jarduera armatua behin betiko uzteko erabakia iragarri zuen. Nazioarteko Egiaztatze Batzordea (NEB) talde armatuaren aitzina pausuen jarraipena egiten hasi zen.

Urrats horiek batzuegan sinesgabetasuna sortu badute ere, Euskal Herriko bake prozesuaren aldeko gizarteko eta nazioarteko dinamika abian ezarri dute. Azken hiru urte hauetan izan ere, bake prozesuarekiko nazioarteko eta euskal gizartearen babesa biderkatu eta dibertsifikatu dira.

Lokal mailan, Euskal Herriko klase politikoaren espektro zabala gatazkak aterabide demokratikoa behar duela esateko ados jarri da. Aieteko Konferentzian parte hartu zutenek gainera, prozesuak aurrera jo dezan lanean darraite.

Nazioarte mailan, nazioarteko su etenaren egiaztatzaileen taldeak (NEB) ETA erakundeak emaniko pausuak zorrozki segitzen ditu eta Harremanetarako Nazioarteko Taldeak (HNT) hego eta ipar Euskal Herriko eragile sozial eta politikoekin biltzen jarraitzen du.

Ondorioz, euskal gatazkaren baitan testuinguru berria ikus genezake eta hortik bere konponketarako baldintza berriak. Euskal Herriko konponbide demokratikorako prozesuaren aldeko dinamikek gero eta jende gehiago eta anitzagoa biltzen dute.



# 1. Aieteko Nazioarteko konferentzia: esperantzaren abiatzea Euskal Herrian.



2011ko urriaren 17an, Donostian, iragan zen Aieteko Konferentziaren ostean nazioarteko sei liderrek bukaerako adierazpena irakurtzen. Ezkerretik eskuinera begiratzuz: Gerry Adams, Gro Harlem Brundtland, Bertie Ahern, Kofi Annan, Pierre Joxe et Jonathan Powell.

2011ko urriaren 17an, nazioarteko sei lider<sup>1</sup> Euskal Herriko politika eta gizarte mailako ordezkari sorta zabalarekin elkartu ziren Donostiako Aiete Jauregian, Euskal Herriarentzako bake prozesu bat plantan ezartzeko xedea lukeen adierazpena agerrarazteko asmoz.

Nazioarteko sei liderrek, tartean Kofi Annan, Nazio Batuetako Idazkari Nagusi ohia eta Pierre Joxe, Frantziako Barne eta Defentsa ministro ohia, Euskal Herrian 50 urte pasa zeramatzan gatazka gainditu eta konpontzeko nahia zuen 5 puntuko bide orria<sup>2</sup> aurkeztu zuten:

**1.** ETArri dei egiten diogu bere jarduera armatuaren behin betiko amaiera iragartzen duen adierazpen publikoa egiteko eta soilik gatazkaren ondorioez aritzeko Espainia eta Frantziako gobernuari elkarrizketarako deia egiteko

**2.** Adierazpen hori egingo balitz, dei egiten diegu Espainiako eta Frantziako gobernuari baiezkoa eman eta gatazka armatuaren ondorioez soilik aritzeko elkarrizketak zabaltzeko

**3.** Adiskidetzea sustatzeko, errekonozimendu lortzeko, kalte-ordaina eta biktima guztiei laguntza emateko, eragindako kaltea aitortzeko eta zauriak sendatzea saiatzeko pausu eraginkorrek ematea, pertsonari eta gizarteari, gomendatzen dugu.

**4.** Gure esperientziak azaltzen digunez, askotan gatazkak konpontzeko orduan badira bake iraunkorra eskuratzeko lagungarriak diren aztertu beharreko beste gaiak. Ildo horretan, eragile ez bortxatzaileak eta ordezkari politikoak bil daitezen iradokitzen dugu, gai politikoak eta gaiarekin zer ikusirik dutenak eztabaidatzeko, herritargoa kontsultatuz, horrek guztiak gatazkarik gabeko aro berria sortzen lagun dezakeelako. Gure esperientziak azpimarratzen duenez, hirugarren parte hartzaileek, begiraleek edota laguntzaileek, elkarrizketa bideratzen laguntzen dute. Hemen ere, gatazkarekin zer ikusirik duten parteei horrela erabakiko balute, elkarrizketa nazioarteko laguntzaileen bidez ere bidera liteke.

**5.** Errekomendazio hauen bideratzea aztertzeko Jarraipen Batzordea eratzeko prestutasuna adierazten dugu.

**1-** Kofi Annan, Nazio Batuetako Idazkari Nagusi ohia; Gro Harlem Brundtland, Norbergjar Lehen Ministro ohia eta "The Elders"-ko (Nelson Mandelak osaturiko bakearen aldeko nazioarteko pertsonalitateen taldea) kidea; Bertien Ahern, Irlandako Lehen Ministro ohia, 1998-ko Ostiral Santuko Akordioaren izenpetzearen bultzatzailetariko bat; Gerry Adams, Sinn Fein-eko burua; Jonathan Powell, Tony Blair Britainiar Lehen ministroaren Kabineteko Buru ohia, ordu hartan azken honek ekialde ertainean zereginik zuenez, haren ordezkari gisa present zena; Pierre Joxe, Frantziako Barne eta Defentsa ministro ohia.

**2-** Ikus eranskina 11 or.



Bake prozesuaren jarraipena egiteko eta hau laguntzeko, bi nazioarteko talde osatu dira:

Brian Currin jaunak antolaturik, 2010-ko martxoaren 29-ko Bruselako adierazpenak, Euskal Herriko bake prozesuari bidea lehuntzeko asmoz, harremanetarako talde trinkoagoa plantan ezartzea aurreikusten zuen. Azkena hau 2011-ko urtarrilean hasi zen lanean.

Taldea hauek osatzen dute:

**Brian Currin Jauna**, abokata, giza eskubideetan, gatazken konponketan eta bake prozesuetan aditua eta Euskal Herriarentzako Harremanetarako Nazioarteko Taldeko arduraduna.

**Silvia Casale Anderea**, kriminologoa, Ipar Irlandarako zigorren berrikusketaz arduratzen den komisioko kidea eta 2000-tik 2007-rat Europako Torturaren prebentziorako komiteko lehendakaria.

**Alberti Spektorowski Jauna**, Tel-Aviv-eko (Israel) unibertsitateko politika zientzietan irakasle, 2000 urteko uztailan iragan zen "David Kanpoa" gailurrean israeldar ordezkartzako kidea.

**Nuala O'Loan Anderea**, 1999-tik 2007-rat Ipar Irlandarako polizia gaietarako bitartekaria (ombudsman).

**Pierre Hazan Jauna**, Nazio Batuetako Giza Eskubideen aldeko goi-mandatariaren kontseilari ohia.

**Raymond Kendall Jauna**, britainiar polizia agente ohia, 15 urtez Interpol-eko Idazkari Nagusi izana eta Europako Iruzzurraren Kontrako Komite Behatzaileko lehendakari ohia (OLAF).

## Harremanetarako Nazioarteko Taldea



Harremanetarako Nazioarteko Taldeko kideak (HNT) Ezkerretik eskuinera begiraturuz.: Pierre Hazan, Nuala O'loan, Raymond Kendall et Brian Currin

### Talde honen eginkizun ehatza:

- Ezker Abertzalearen legeztatzea sustatu, errextu eta ahalbidetzea.
- Konfiantza giroa sortuko luketen neurriak hartzearen sustatzaile izatea.
- Alderdi politikoek elkarrizketa plantan eman dezaten sustatzea eta laguntzea.
- Alderdiek eskatuko dioten heinean, alderdien arteko elkarrizketa eta negoziazioa sustatu, errextu eta ahalbidetzea, gatazka politikoa gainditzeko gai litzatekeen akordio bateratzailea erdiesteko helburuarekin.
- Alde ezberdinek eskaturik, blokatzea gertatuz gero bitartekari lanak egitea.
- Gizartearen baitan, bake prozesu arrakastatsu baten posibilitate handiaren inguruan konfiantza sortzea.



Nazioarteko Egiatzatze Batzordeko kideak (NEB). Ezkerretik eskuinera begiratu. : Ronnie Kasrills, Ram Manikkalingam, Fleur Ravensbergen, Satish Nambiar, Chris Maccabe. Argazkian agertzen ez dena: Aracelly Santana.

# Nazioarteko Egiatzatze Batzordea

**Bonnie Kasrills Jauna**, Hego Afrikako politikaria. 1987-tik 2007-rat, Afrikar Kongresuko Nazionaleko kide izana da.

**Christopher George Maccabe Jauna**, Erresuma Batuko Ipar Irlandako bulegoko zuzendari ohia.

**Ram Manikkalingam Jauna**, "Dialogue Advisory Group"-eko zuzendari eta Amsterdamgo Unibertsitateko irakaslea da. Irak-eko zein Ipar Irlandako gatazken konponbide proiektuetan lan egin du.

**Satish Nambiar**, Teniente Jenerala eta Indiako Estatu Nagusiko Armadaburuaren ondoko ohia

**Fleur Ravensbergen Anderea**, NEB-aren koordinatzailea, "Dialogue Advisory Group"-eko kidea.

**Aracelly Santana**, NBEko Idazkari Orokorraren Alboko Ordezkarria eta Misio Alboko Burua Nepalen.

Nazioarteko liderrek Aieteko Konferentziaren ondotik, ETA-ri eta Estatu espainiar zein frantziarrari Euskal Herriko gatazkaren konponbidean engaiatzeko eskatu zieten, gehiengo sozial eta politikoak aldarrikatzen zuten bezala. Urriaren 20-ean, ETA-k borroka armatuaren behin betiko etenaldi atzerazinen bidez, nazioarteko eskariari baikorki ihardesten zion eta ondorioz gatazkaren konponbidea abian jartzeko eta Estatu espainiar zein frantziarrarekin elkarrizketan aritzeko prestutasuna erakusten zuen.

2013-ko Apirilean, ETA talde armatuak nazioarteko batzordeari, bere eginkizunen zerrandan ETA-ren armen, lehergailuen eta munizioen baliogabetzea eta zigilupean ezartzea gehitzeko eskaria egin zion. 2014-ko otsailaren 21-ean, NEB-ak ETA-k bere armategia baliogabetu eta zigilupean ezarri zuela prentsaren aitzinean jakinarazten zuen (BBC-k hedatu zuen talde armatuak eta NEB-ak egin zuten armategiaren parte baten aurkezpen bideoa), eta urratsa "sinesgarria eta esanguratsua" zela gehitu.

NEB-aren adierazpenaren biharamunean, ETA talde armatuak armen eta munizioen baliogabetzea onartu izanari zegokionez, Bill Clinton (EEBB) eta Luiz Inacio Lula da Silva (brasil) lehendakari ohiek, prozesuaren alde burutu ziren urratsekiko elkartasuna adierazi zuten.

2014 abenduaren 21-ean<sup>3</sup>, NEB-k ETA-k armak baliogabetzen eta zigilupean ezartzen jarraitzen zuela berresten zuen eta batzordeko kideek duten beste prozesuetako esperientziaren arabera, desarmatze osorako egiazko urratsak zirela baieztatzen zuen.



## 2.

# Frantziako Euskal Herriko elgarrizketa taldearen adierazpena.

Tokiko eragile politikoengaiamendu  
amankomuna konponbidearen bidean

## Aieteko konferentzia bultzada gisa



Ipar Euskal Herriko hainbat eragile sozial zein sindikalek Aieteko Konferentzian parte hartu zuten, besteak beste Frédérique Espagnac, Pirineo Atlantikoetako Senatari sozialista eta Max Brisson, Kontseilari orokorra eta UMP-ko departamenduko idazkaria. Ekimen horren ostean, Euskal Herrian egoera berri bat zegoela jabeturik eta gatazka integralki konpontzearen nahiarekin, gatazkaren parte guziak kontutan hartuko dituen protokolo zorrotz bat beharrezkoa zela ondorioztatu zuten.





2014ko Urriaren 24an, Aieteko konferentzian parte hartu zuten eragile politiko zein sozialek, frantses Estatuari zuzendutako adierazpen amankomun bat aurkeztu zuten, "Frantziako Euskal Herriko elgarrizketa taldea"-ren izenean izenpetuz.

**Jean-René Etchegaray**, Baionako auzapeza (alderdi zentrista)

**Kotte Ecenarro**, Hendaiako auzapeza eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko lehendakari ordea (PS)

**Max Brisson**, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko kidea, Miarritzeko herri hautetsia Frédérique Espagnac, Pirinio Atlantikoetako senataria (PS)

**Jean-Jacques Lasserre**, Pirinio Atlantikoetako senataria, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko kidea eta Hautetsien Kontseiluko lehendakaria (alderdi zentrista).

**Xabi Larralde**, Sortuko arduraduna Ipar Euskal Herrian

**Jakes Bortayrou**, Abertzaleen Batasuneko arduraduna

**Michel Larralde**, CFDT Euskal Herriko idazkari nagusia

**Jean Lissar**, Europa Ekologia Berdeak (EELV) Euskal Herriko bozemailea

Marc Oxibar

**Jean-Pierre Etcheverry**, CFDT Euskal Herriko idazkaritzako kide

## Errotzen den engaiamendu bat

Adierazpen amankomuna, Lokarriren eta Nazioarteko Harremanetarako Taldeko kideen presentziarekn aurkeztu zen. Bake prozesuari lotutako hainbat punduen inguruan den adostasuna adierazten du. Indar politiko desberdinek, Aieteko adierazpena garatzeko eta bake prozesuan egin ditzazken ekarpenen inguruko gogoetaren emaitza da.

Adierazpena frantses Estatuari zuzendua izanik, frantses Estatuaren parte hartzearen garrantzia agerian jartzen du Euskal Herriko gatazkaren konponbidean.

Elgarrizketa taldeak, frantses Estatuaren interpelatzen du euskal preso politikoek, ETA talde armatuaren desarmearen eta Ipar Euskal Herriko ezagutza instituzionalaren gaien inuguruan. Bide beretik, bergogoratzeko dio alor horietan eman beharreko pausuak garrantzitsuak gaur egun dugun bake prozesuarentzat.

Talde honen borondatea, konponbide prozesuari ekarpen positibo bat egitea, bizikidetzat laguntzen dituen aukera errealak identifikatzea eta Euskal Herri osoan bake iraunkor baten oinarriak kokatzea dira.



# Ondorioa

Bakearen aldeko testuinguru berri baten lekuko, eskari beraren zerbitzura den aniztasun politikoa, gatazkaren alde guziak kontuan hartzen dituen bake prozesu baten plantan ezartzea, nazioarteko komunitatearen babes eta konfiantza geroz eta handiagoa eta geroz eta sentsibilizatuagoa eta mobilizatuago den gizarte zibila dira. Prozesua burura eramateko eta denek bizikidetza baketsuan izanen den Euskal Herria ezagutzeko aukera izan dezagun eskas den azken etapa, frantziar eta espainiar Estatuengandikengandua da.





# Eranskinak

## Aieteko Adierazpena

"Euskal Herrira etorri gara gaur Europako azken konfrontazio armatua behin betiko gainditzeko garaia iritsi dela eta posible dela pentsatzen dugulako.

Gure ustez, gaur egun, helburu hori lorgarria da euskal herritarren, bere ordezkari politikoen eta Europa zein Nazioarteko Komunitate zabalaren laguntzarekin. Argi adierazi nahi dugu ez garela hona etorri ezer inposatzerara eta inork ez dezala pentsa herri honetako herritargoari ezer agintzeko eskubidea edota autoritatea dugunik. Ez gara inor hemengo eragile ezberdinei eta beraien ordezkari politikoei zer egin behar duten esateko. Halaber, fede onez etorri gara eta espero dugu gure herriek eta jendarteek, baita besteenek ere, pairatu zituzten gatazka luzeak konponduz eskuratu dugun esperientziatik abiatuz eskainiko dizkizuegun ideiak baliagarriak izango zaizkizuela.

Gure esperientzia horretatik abiatuz, jakin badakigu bortxakeria eta gatazka egoera konpontzea eta bake iraunkorra erdiestea ez dela inoiz lorpen erraza izatean. Ausardia beharrezkoa da, arriskuak hartzeko borondatea eduki behar da, konpromiso sakonak, esku zabaltasuna eta estatu buru sena behar dira.

Bakea errekontziliazioaren indarra gorrotoan oinarrituriko ohiturei nagusitzean dator; egungo egoeraren eta etorkizun hobearen aukera iraganeko ozpindura baino askoz ere onuragarriagoa denean.

Gure esperientziak erakutsi digunez, bakea eskuratzeko benetako aukera ematen denean, ezinbestean aprobetxatu beharra dago. Gatazka, elkarrizketaren bidez, inolako bortxakeriarik gabe eta demokraziaren eskutik gainditzeko herritargoak bai eta bere ordezkari politikoei egin duten aldarrikapenaren indartzeak aukera hau zabaldu du.

Gure ustez, berrogeita hamar urte baino gehiago iraun duen biolentzia amaitu, eta bake iraunkorra eta justua eskuratzeko aukera une honetan bideragarria eta eskuragarria da.

### Honengatik guztiarengatik:

1. ETari dei egiten diogu bere jarduera armatuaren behin betiko amaiera iragartzen duen adierazpen publikoa egiteko eta soilik gatazkaren ondorioez aritzeko Espainia eta Frantziako gobernuei elkarrizketarako deia egiteko.
2. Adierazpen hori egingo balitz, dei egiten diegu Espainiako eta Frantziako gobernuei baiezkota eman eta gatazkaren armatuaren ondorioez soilik aritzeko elkarrizketak zabaltzeko.
3. Zabaldu diren zauri pertsonalak eta sozialak sendatzeko lagungarria delako, eginiko minaren aitortpena, biktima guztien aitortza eta berauen laguntza, eta errekontziliazioan aurrera egiteko urrats sakonak eman daitezten eskatzen dugu.
4. Gure esperientziak azaltzen digunez, askotan gatazkak konpontzeko orduan badira bake iraunkorra eskuratzeko lagungarriak diren aztertu beharreko beste gaiak. Ildo horretan, eragile ez bortxatzaileak eta ordezkari politikoak bil daitezten iradokitzen dugu, gai politikoak eta gaiarekin zer ikusirik dutenak eztabaidatzeko, herritargoa kontsultatuz, horrek guztiak gatazkarik gabeko aro berria sortzen lagun dezakeelako. Gure esperientziak azpimarratzen duenez, hirugarren parte hartzaileek, begiraleek edota laguntzaileek, elkarrizketa bideratzen laguntzen dute. Hemen ere, gatazkarekin zer ikusirik duten parteek horrela erabakiko balute, elkarrizketa nazioarteko laguntzaileen bidez ere bidera liteke.
5. Errekomendazio hauen bideratzea aztertzeko Jarraipen Batzordea eratzeko prestutasuna adierazten dugu."

Donostian, 2011ko urriaren 17an



# Nazioartean sustengaturiko adierazpena

## Tony Blair-en adierazpena

Tony Blair Britainia Haundiko lehen ministro ohiak, nazioarteko liderrek ETA-ri borroka armatua bertan behera uzteko eskatuz Donostian argitaratu zuten adierazpena sutuki sustengatu zuen. Europako azken gatazka armatuarekin bukatzeko parada dagoela uste du eta hartara, buruzagi politiko guziak aukera ez galtzera deitu zituen

## Carter Zentroak Euskal eskualdea berradiskidetzeko burutzen diren ahaleginen alde eginiko adierazpena

Estatu Batuetako Presidente ohiak, nazioarteko buruek Hego Euskal Herriko konferentzian zabalduriko adierazpena onesten du. Honek, eskualdean luze doan gatazka gainditzearen ETA eta Espainia eta Frantzia el-karrizketara deitzen ditu. Bere aburuz, "desmartxa horrek Nazioarteko Komunitatearen babesa merezi du".

## George Mitchell senatariak eginiko adierazpena

"Atzo Donostian, nazioarteko buruek argitaraturiko Adierazpena osoki sustengatzen dut. Europako azken gatazka armatuari amaiera aurkitzeko ahal diren neurri guziak hartzea ezinbestekoa da. ETA-ri zuzendu dioten deiarekin, hau da, jarduera armatuaren amaiera publikoki adierazteko eta espainiar eta frantziar Gobernuen gatazkaren ondorioen inguruan mintzatzea onartzeko deiarekin bat egiten dut. Bake iraunkorra erdiesteko aukera dagoela eta aukera hori ukituak diren eragile guziek hartu beharko luketela uste dut."

## Euskal Herriarentzako bakearen aldeko kontinenteen topaketa

Nazioarteko konferentzia hori 2013ko urriaren 17an iragan zen Mexikon. Konferentzia, bakearen eta Giza Eskubideen alde diharduten Amerika latinako bost erakundek eta Lokarrik antolatu zuten. Aieteko Adierazpenarekin bat egin zuten 18 izenpetzaileen artean<sup>5</sup>, Unesco-ko zuzendari nagusi izandako bat, ministro ohi batzuk eta Hego eta Zentro Amerikako hamabi lehendakari ohi aurki genitzake. Jatorri eta iritzi ezberdinekoak dira eta batzuen kasuan, gatazken konponbideetan parte hartu izan dute. Bolibia, Kolonbia, Txile eta Guatemalako lehendakari ohi horiekin, Euskal Herriko gatazkaren konponbidearen alde engaiatu diren estatuburuak kopurua 14 izatera pasatzen da.

<sup>5</sup>- VINICIO CERREZO, Guatemalako lehendakari 1986tik 1991ra; ALVARO COLOM, Guatemalako lehendakari 2008tik 2012ra; JAIME PAZ ZAMORA; Bolibiako lehendakari 1989tik 1993ra; RODRIGO BORJA, Ekuadorreko lehendakari 1988tik 1992ra; OSCAR ARIAS, Kosta Rikako lehendakari bi agintalditan: 1986tik 1990ra eta 2006tik 2010ra; RICARDO LAGOS, Txileko lehendakari 2000tik 2006ra; CESAR GAVIRIA, Kolonbiako lehendakari 1990tik 1994ra; FERNANDO LUGO, Paraguaiako lehendakari 2008tik 2012ra; ERNESTO SAMPER, Kolonbiako lehendakari 1994tik 1998ra; JUAN C. WASMOSY, Paraguaiako lehendakari 1993tik 1998ra; BELISARIO BETANCUR, Kolonbiako lehendakari 1982tik 1986ra; JULIO M. SAGUINETTI, Uruguaiako lehendakari bi agintalditan: 1985tik 1990ra eta 1995tik 2000ra; CARLOS MESA, Bolibiako lehendakari 2003tik 2005ra; JORGE TAPIA, Txileko hezkuntza ministroa 1972-73 (Allenderen gobernuan); LUIS O. MAIRA, Txileko barne plangintzarako eta kooperaziorako ministroa 1994tik 1996ra; F. MAYOR ZARAGOZA, UNESCO-ko (United Nations Education, Science and Culture Organization) zuzendari nagusia 1987tik 1999ra; MIGUEL D'ESCOTO, Nikaraguako Kanpo Harremanetarako ministroa 1979tik 1990ra; LUCIA TOPOLANSKY, gaur egungo Uruguaiako senatari 2005az geroztik eta lehen dama 2009tik 2015ra.



## Frantziako Euskal Herriko elkarrizketa taldea

2011ko urriaren 17an, Aieteko Nazioarteko Konferentzia egin zen Donostian. Konferentziaren bukaerari "Aieteko deklarazioa" izenpetu zuten nazioarteko gatazken konponketa lanetan diharduten hainbat buruzagik.

Frantziako Euskal Herriko<sup>6</sup> hautetsi edota alderdi baten ordezkari garenok onespena eman diegu, bakoitzaren izenean ala gure alderdien izenean, Aieteko deklarazioari bai eta honek biltzen dituen puntuei ere, testu horrek balio zuelako trantsiziozko bide orri gisa bakerako bidean. Horrek bultzatu gaitu elkarren arteko lan baten eramatera Aietez geroztik, 2011ko urriaren 20an ETA-k eman zuen su etena-ren ondorioz hasitako bake prozesuari ekarpen baten egiteko gure engaiamendu azkarraren bidez.

Elkarrizketa prozesu horretan, Aieteko deklarazioan aurkitzen ziren puntuak garatu ditugu eta bake prozesuari ekarpen geniokeenaz gogoeta bat eraman dugu. Hemen aurkezten dugun dokumentuan puntu ainitzetan lortu dugun adostasuna nabaritzen da. Proposamenak ere ekartzen ditu, gure ustez Frantziako Euskal Herriko jendartearen onarpen zabala lor lezaketenak.

Gure nahia bidean den prozesuari ekarpen baikor baten egitea da, elkarbizitzaren alde neurrien hartze-ko egiazko aukeren argitara ekartzea eta bake iraunkor baten oinarri sendoen abiatzea Euskal Herri osoan.

### Dokumentua izenpetzen dutenak :

**Jean-René Etchegaray**, Baionako auzapeza (alderdi zentrista)

**Kotte Ecenarro**, Hendaiaiko auzapeza eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko lehendakari ordea (PS)

**Max Brisson**, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko kidea, Miarrizteko herri hautetsia

**Frédérique Espagnac**, Pirinio Atlantikoetako senataria (PS)

**Jean-Jacques Lasserre**, Pirinio Atlantikoetako senataria, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko kidea eta Hautetsien Kontseiluko lehendakaria (alderdi zentrista).

**Xabi Larralde**, Sortuko arduraduna Ipar Euskal Herrian

**Jakes Bortayrou**, Abertzaleen Batasuneko arduraduna

**Michel Larralde**, CFDT Euskal Herriko idazkari nagusia

**Jean Lissar**, Europa Ekologia Berdeak (EELV) Euskal Herriko bozemailea

Marc Oxibar

**Jean-Pierre Etcheverry**, CFDT Euskal Herriko idazkaritzako kide

<sup>6</sup> Euskal Herri frantsesa, Ipar Euskal herria, Iparralde ... Lur honen deitzeko manerak ainitzak dira eta aktoreen ideia eta xede politiko ezberdinak irudikatzen dituzte zazpi probintzi historikoetaz ari garenean. Ez bata ez bestea ez bazaie hemen bildutako aktore guztieri komeni, "Frantziako Euskal Herria" deitura erabiltzen dugu dokumento honetan, bereizketa guttien sortzen duen izena baita.



## 1. Frantziako gobernu eta ETAren arteko elkarrizketa

Gatazkaren konponketan Frantziaren parte hartzea beharrezkoa izanik, Frantziako gobernuak ETArekin elkarrizketaren partaide izan behar du. Lehen denbora batean, eta elkarrizketak ahal bezain ongi pasa daitezten, maila pribatu batean eginen dira. Aurrerapauso nabarmenak emanak izanen direnean, orduan maila publiko batera pasa daitezke.

Ondoko puntuak aipa daitezke elkarrizketa prozesu horretan:

- A)** Gaurko marko juridikoaren barnean eta Giza eskubideak errespetatuz hartu daitezkeen neurriak:
- Auziperatuak izan diren preso guztien bai eta auziaren zain diren presoek hurbilketa, elkartzea eta preso sartua den pertsonaren eskubideen salbuespenik gabeko aplikazioa.
  - Baldintzapeko edo behin-behineko askatasun neurriak ukan ditzaketen pertsonen libratzea, eri diren edota kondena bukatzeaz duten presoek ere.
  - Presoek ber gizarteratze plan bat (lana, etxebizitza, erretirerako laguntzak...) Erakunde publikoek apailaturik.
- B)** Adostasun politikoa eta marko juridiko berria eskatuko duten neurriak :
- Instantzia berezitu baten sorrera, ondoko auziak trinkatzeko :
    - kondena ukana duten baina baldintzapeko askatasun neurririk eska ez dezaketen presoek askapenerako baldintzak bai eta auziaren zain baina behin-behineko libratzea lortzen ahal ez dutenak ere.
    - errefuxiatuek beraien bizilekuaren libreki hautatzeko eskubidea
    - Prozedura polizial eta juridikoen gelditzea ETA-ko militanteen aurka eta hauen egoeren ikertzea kasuz kasu.
    - Delitu politikoek kentzea Euroaginduen aplikaziotik.
    - Euskal gatazkari loturik dauden kasuetan Euroaginduen aplikazioan derogazio sistema bat sortzea.
  - Epe luzean amnistia lege baten sortzea euskal gatazkari loturik dauden kasuentzat.
- C)** ETAren jardun armatuaren bukaerari lotutako neurriak
- Nazioartean kontrolpean Frantziako gobernu eta ETAren arteko akordioa, Frantziako ETA-ko azpiegiturak nola desegin eta desarmatu argituko dituzten baldintza eta egin moldeen definitzeko eta bururaino eramateko.

## 2. Gatazkaren ondorioak eta berradiskidetzea

“Egia eta berradiskidetzea” motako berezilar talde bat sortu behar litzateke, gatazkari lotutako gertakariak argitzeko, biktima guztien sufrikarioaz ezagupen orokorra bermatzeko eta xuxentze/ordaintze bide ezberdinen definitzeko (soziala, ekonomikoa...).

Berradiskidetze arazo aipatu behar litzateke bake prozesuaren hasieratik eta prozesuan inplikatuak diren aktore bakoitzaren erritmoak errespetatuz.

Prozesu horretan gobernuaren enbaitasuna nahitaezkoa izanen da.

## 3. Frantziako Euskal Herriaren kuadro juridiko, politiko eta instituzionala

Frantzia mailan, deszentralizazioaren legearen 3. urratsak eztabada ideki du eta Frantziako Euskal Herriaren dako koadro instituzional egokiena definitzeko aukera eman du : estatutu bereziko lurralde kolektibitatea. Lurralde kolektibitatearen proposamenak adostasun politiko zabala eta jendartearen inplikazio azkarra lortu ditu.

Instituzioen antolaketaren arloan lege aldaketa garrantzitsuak oraindik etortzekoak direlarik, gaur egun beste aukera batzuk ere eztabaidatzen ari dira.

Hala izanik ere, Frantziako Euskal Herriari marko instituzional berezi baten ematea bake iraunkorra bermatzeko etapa baikorra izanen da.

**2014ko urriak 24ean, Baionan izenpetua**



# Nazioarteko egiaztatze batzordearen adierazpena

2014ko abenduak 21

Nazioarteko Egiaztatze Batzordea (NEB) 2011ko irailaren 28an eratu zen ETAk 2011ko urtarrilaren 10ean iragarritako «su-eten iraunkor, orokor eta egiaztagarria» eta ondorengo 2011ko urriaren 20ko indarkeriaren behin betiko amaiera egiaztatzeko. Batzordea eratu zenetik ETAk hilketa, atentatu, mehatxu eta estorsio ororekin amaitzeko bere konpromisoa mantendu duela egiaztatu du Batzordeak.

Denbora tarte honetan zehar euskal eragile politiko eta sozialekin hertsiki lanean aritu da. NEBk su-etena eta indarkeriaren behin betiko amaiera egiaztatzeko lanean bere laguntza eta babesa eskertu nahi dizkie. Batzordeak Euskal Herrira egindako bisitetan, NEBk aurrerapauso positiboak egiaztatu ditu Euskal Herrian eta indarkeriaren amaiera errotzeko esfortzuak areagotzeko bere desioa agertzen jarraitzen du.

2013ko apirilean, NEBaren mandatua zabaldu egin zen ETaren arma, munizio eta lehergaiak zigilatu eta erabilera operatibotik kanpo uzteko prozesu aldebakarra egiaztatzeko lana barne hartuz. 2014ko urtarrilean, ETak arma, munizio eta lehergailu kopuru zehtz bat zigilatu eta erabilera operatibotik kanpo utzi zituela egiaztatu zuen Batzordeak. Era berean, arma, munizio eta lehergailu guztiak azkenik erabilera operatibotik kanpo uztera bideratutako prozesuaren lehen pausoa zela baieztatu zuen Batzordeak.

Berriki, NEBak ETaren txostenak jaso ditu bere arma, munizio eta lehergailuak zigilatu eta erabilera operatibotik kanpo uzteko prozesuak jarraitzen duela adieraziz. ETak 2014ko martxoan iragarritako konpromisoa berretsi dio NEBari, hain zuzen ere, bere arma, munizio eta lehergailuak zigilatu eta erabilera operatibotik kanpo uzteko, eta hauen inbentario bat garatzeko. Beste prozesu batzuetako gure eskarmentutik, desarme osoaren aurretiko beharrezko pausoa da arma, munizio eta lehergailuak inbentariatu eta erabilera operatibotik kanpo jartzea.

Batzordeak dagozkion eragileekin lanean jarraituko du ahal bezain laster prozesu hau burutzeko. Ziur gaude Euskal Herriko eragile politiko eta sozial guztien laguntzarekin lortu daitekeela. Batzordeak erabakitasunez eta inpartzialtasunez lanean jarraituko du bake iraunkor baten alde.

Batzordea hurrengo kideek osatzen dute:

## **Ronnie Kasrils, Inteligentzia ministro ohia eta defentsa Ministrordea Hegoafrikan.**

**Chris Maccabe**, Gobernu britainiarreko Ipar Irlandako Bulegoko Zuzendari politiko ohia eta Ipar Irlandako Presondegi Erregimenean Buru ohia.

**Ram Manikkalingam**, Elkarriketarako Aholkularitza Taldeko Zuzendari eta Amsterdameko Unibertsitateko Irakaslea eta Sri Lankako Presidentearen aholkulari ohia Tigre tamilen negoziatioetarako.

**Satish Nambiar**, Indiako Estatu Nagusiko Armadako Buru Adjuntu ohia eta Komandante ohia eta Nazio Batuen Babes Indarren Misio Buru ohia Jugoslavian 1992 eta 1993an.

**Fleur Ravensbergen**, NEBren koordinatzailea eta Elkarriketarako Aholkularitza Taldeko zuzendariordea.

**Aracelly Santana**, NBEko Idazkari Orokorraren Alboko Ordezkarria eta Misio Alboko Burua, Nepalen NBEko Misioa (UNMIN) eta Ameriketako Bulegoko Zuzendari ohia, NBEko Gai Politikoen Departamendua.

